✱ Nola inspiratu zinen kartela egiteko? Emaztearekin pasiaran nenbilela, lehiaketako deialdia ikusi nuen. Hurrengo egunean amaitzen zen lanak aurkezteko epea, baina saiatzea erabaki nuen. Papera hartu, eta herriko toki esanguratsuena marraztea egokia izan zitekeela iruditu zitzaidan. Udaletxe berria daukagu herrian, polita da, marrazteko modukoa, Santa Kruz mendia

egin nion atze
dantzaldia irui
tzan. Bi tanbo
✱ Zein telen.1
Nire lan guztij
1arekin egin ⥣)
tula

1/ Parte hari
al da? Bai, ni
zutenik ere. E
datorren urtea
ruenik.

# na ia1Xalt 2002



n̈iz animauko gera". Piropo irabazlee-kin 4000 pegatina ateratzeko asmoa daukatela adierazi digu Leirek. Disei-nu aldetik sinpleak baina kolore biziz eginikoak izango omen dira pegatina hauek, helburua, jendearen atentzioa erakartzea da eta. Aipatu beharra dago bestalde, umeen kategorian opari sor-presa izango duela irabazleak, eta na-gusien mailan, bi pertsonen-tzako afari erromantikoa izango da saria.

## Santa Ana Jaixak Telebis-tan

Mendaroko telebistatik azal-du digutenez, Santana Jaie-tako ekitaldiak emititzeko asmoa daukate. Programa-zioko ekitaldi desberdinak grabatu, eta festetan zehar ikusi ahal izango dira. MTB irailetik aurrera hasiko da formatiboak emititzen, baina oraindik hasteko epea zehaztu gabe dago.

## Gazte Asanbladakoak borrokan

Santana Jaixak izan arren, Gazte Asanbladakoentzat ez dago atsedenik. Udalarekin borrokan jarraitzen dute, eta akordio batera iritsi ezean, luzaro-an iraungo du tira-bira honek. Jai al-ternatiboak prestatzeko ere, ez daukate denborarik ezta aukerarik ere. Mojen



Konbentu zaharreko eskolak okupatu dituzte oraingoan, eta nahikoa lan dau-kate toki berria txukuntzen. Hala ere, futbito txapelketa antolatu dute, eta uztailaren 23an jokatuko da finala. Festetan txozna bat jarriko dute Herri-ko Enparantzan diru apur bat lortzeko, eta gauzak ondo joanez gero, Gaztetxe berria inauguratuko dute. Momentuz ez daukate argirik, ezta urik ere, baina hori guztia lortzen badute, festetan Gaztetxea zabalik egongo da.

in jaietan falta ezin den
ikatu nuen herriko enparan-
inero eta jendea dantzan.
ca erabili zenuen? Oleoa.
k oleoan egiten ditut. Espatu-
Len kartela. Pintzela eta espa-
ditut

len duzun lehenengo aldia
ez nekien lehiaketa egiten
perientzia ona izan da, beraz,
ere parte hartuko dut segu-

- **Nondik datorkizu marrazteko zaletasuna?** Gaztetatik marrazten dut. Hobby bat da niretzat. Bizkarreko arazoak ditut, eta duela harnar urte lanik egin ezinda gelditu nintzen, beraz, orain denbora soberan daukat eta asko marrazten dut. Koadro ugari ditut etxean, eta lagunei ere egiten dizkiet lan batzuk,

- **Zer marrazten duzu?** Denetarik egiten dut. Mendiak, kostaldea... orain momentuan nire ezkontzako argazki bat marrazten ari naiz. Niretzako zailena erretratuak marraztea da, baina orain arte egin dudan lanik onena, Elkanoren irudia izan da.



# Snetulg zailan



ila~ete honetako erretratu zaharra Martina Longartek laga digu. Duela 50 urte inguru ateratako argazkia da, Santa Anako arbolapean. Txistularien doinuekin aurreskua dantzatu ostean ateratako erretratua da. Gogora ditzagun argazkian agertzen direnak. Zutik ezkerretik eskumara: Txanbolin (t), ezezaguna, Jose Zabala, ezezaguna, Pilar Zubiaurre, Jose Luis Irureta, Martina Longarte, MA Esther Arrizabalaga, Sabino Longarte, Flores Mendikute, Nati Arrillaga, Antonio Iriondo, Ma Carmen Arrieta, Agustin Esnaola, Agustin Mugerza, Lourdes Arrizabalaga, Migel Salegi, Ma Paz Ansuategi, Angel Zabaleta (tanborrarekin) (t)
Makurtuta ezkerretik eskumara: Pako Arrizabalaga, Ma Luisa Areitio, Pilar Esnaola, Mertxe Belloso, Julian Urruzola, Fermin Zubiaurre (f), Andres Urain, Juanita (elgoibartarra).


JANTZIDENDA

Maria Angeles Azpiazu




SASTRERIXIA

Azpilikueta, 24. MENDARO Tel. 943 03 36 29

Uthlo znInu bamlak 12
**Abuztuak 3tik 19ra oporretan**

owpo PASA oPcgg

Hala ere enkarguak jasoko dira
943 74 34 26 telefonoan 24 orduz

*Basartedquwa, 4*
*Telf. - Fax: 943 743 426*
*20870 Elaifiar*

JATETXEA

MAKINAK NEURR1RA

**LAN|BI**

IVIANIPULAZIOA eta MUNTAIA - MAKINA BEREZIA
BRUNIDORAK - KONTROL DIMENTSIONALA

Donostia-Bilbo Errep. 53. lon.
20870 **MENDARO**
**Tel:** 943 75 50 GO
**Faxa:** 943 75 51 62

*4,yitt.t!*

http://www.lanbi.com






tirogoming
paella jana
play back lehiaketa
pilota jaialdia
dantzaldiak





Ondo pasau JAIXAK!

MENDARO 1983

# Sargoateko errpzpola



***Egitasmoa***

***/1:00*** **Meza**
***12:00*** **Salda eta txorizoa**
***12:30*** **Trikitilariak**
**Bertsolariak**
***14:00*** **Erromeriaren amaiera**

**ANTOLATZAILEAK** Sallobenteko Jai Batzordea • Morkaiko • Elgoibarko Izarra • Debemen • Udala

# [11]Desagertzear daucen aintzinako txokoez naitemincutako margolaria naizn

*Margolari bakarti moduan definitu du bere burua. Luzianoren margolanek erakarrita pinturaren munduan sartu eta gaur egun ere horretan dihardu Gemma Monrealek. Toki askotan izan dira ikusgai bere lanak eta Elgoibarren izena ez ezik herriko hainbat txoko Espainian barrena zabaldu ditu bere margolanen bitartez. Aurki bi erakusketa inauguratuko ditu: Zarautzen bata eta Sorian bestea. Beraz, elgoibartarrok oporrak aprobetxatuz badugu Gemmaren lan berriak ezagutzeko aukera.*



• Nola hasi zinen margotzen?

Beti izan dut gustuko marraztea eta margotzea, hasieran nik bakarrik egiten nuen, Luziano ezagutu nuen arte. Berak erakutsi zizkidan koadroak garatzen, margotzeko teknikak... Bere margoekin maitemindu nintzen eta hona etortzen zenean leku guztietara jarraitzen nion. Berarengandik jaso dut kale zaharrak, aintzinako baserriak... margotzeko gustua. Ondoren, bakarrik ordu asko pasa ditut margotzen. Nire bizitza pintura da eta bizitzeko beharrezko dut margotzea. Egunen baten margotzen ez badut zerbait falta zaidan edo inspiraziorik gabe nagoen seinale da.

■ Zein motatako margoak egiten dituzu?

Errealismoan kokatuko nituzke nire lanak. Margotzen dudana nire eta ikuslearen arimen arteko zubi izatea gustatzen zait. Lientzoan espatularekin oleoz margotzen dut. Noizean behin lurra edo area bezalako material berriak ere nahasten ditut.

■ Zer islatzen dute zure Ianek?

Aintzinako etxe, kale, baserri, basoekin, desagertzear dauden txokoez maitemindutako margolaria naiz. Lantzen ditudan gaiak oso nostalgikoak dira. Koadroetan islatzen ditudan lekuak desagertu ez daitezen borrokatzen duen margolari moduan senti tzen naiz. Esaterako, lehen aldiz errementeriko etxea margotu nuenean oso polita iruditu zitzaidan, eta bota zutenean negar egin nuen eta baita berriz margotu ere, berreskuratu nahiko banu bezala.

• Nlargoaren bidez Elgoibar ezagutarazi nahi duzu. Zein lekutan erakutsi dituzu lanak?

Granadan, Jaenen, Segovian, Gasteizen, Donostian.., eta aurrerantzean ere beste leku askotan erakusteko asmoa dut. Kanpoan asko harritzen dira hemengo txokoak ikusten dituztenean. Gogoan dut San Rokeko ermitaren koadro bat Granadan erakutsi nuenean nola galdetu zidaten aurreko gari-soroa nik asmatua ote zen ala benetakoa.

■ Orain ere haduzu erakusketa bat esku artean, ezta?

Datorren igandean, hilaren 14an, Zarauzko Kayua galerian inauguratuko da nire erakusketa eta gertu egonik elgoibartarrak nire lanak ikustera animatu eta gonbidatu nahi ditut. Espainiako txoko ezberdinak islatzen dituzten 30 koadro egongo dira bertan ikusgai. Bestalde, abuztuaren lean, Burgo de Osmako (Soria) El salon azul galerian beste erakusketa bat inauguratuko dut. Koadro gehienek Calatañazor herriko txokoak erakutsiko dituzte. Izan ere, Almanzorgo milurtekoa ospatzeko ekitaldien barruan kokatu dute erakusketa.

■ Zer behar du margolari on batek?

Margotzeko beharra eta gogoa sentitzea eta inspirazio momentuak edukitzea. Bestalde, uneoro gaien bila ibili behar da, detailerik txikienean ere fijatuz eta ikusten duen horretan hurrengo koadroa imaginatuz. Niri, adibidez, bistatik Karakate kenduko balidate, nire inspirazio zati bat desagertuta legoke. Goizetan jaiki eta Karakate lainoz estalita ikusteak inspiratzen nau. Euri eta ekaitz egunak ere niretzat inspirazio iturri dira.

**"Hilaren 14an, Zarauzko Kayua galerian inauguratuko da nire erakusketa, eta elgoibartarrak nire lanak ikustera gonbidatu nahi ditut"**

• Zein da zure hurrengo erronka?

Nire margolanak ezagutzera ematea batez ere. Horretarako Calatañazor herrian erakusketa bat egingo dut, eta beste bat abenduan Elgoibarren. Hiru edo lau urtean behin egiten dut erakusketaren bat herrian eta erakutsiko dudana sorpresa izango da.

## EMAITZAK

**Futbola**

Furbof 7
Final zortzirenak
Mazzantini 3 Inkizizioa1
Txuta Gar 0 - Antxarrakl
Ford Lerun **4** - DO. Com 7
Sporting Mont. 3 - F. Astigarraga 7

**Esku pilota**

Sigmako Txapelketa
Olaso/Egaria 20 - AnsolalPerea **22**
Iharluzea/Xabler **22** - Idoeta/Arrieta **21**
Eneko/Balzola **22** - Karmel/Agirrebeñall
AnsolalPerea **21** - Urtubia/Unal **22**
Garate/Iparragirre **22** -Illazia/Iriondo **15**
Ander/Gerrika **22** - Karral/Lander 1

# Jesus Loroño Memoriala txirrindulari lasterketa irabazi du Arkaitz Mujika elgoibartarrak



Quebrantahuesos Zikloturista proban hirug ren egin ondoren, sasoi puntuari eutsi dio Arkaitz Mujika txirrindulari elgoibartarrak eta Jesus Loroño Memoriala irabazi zuen pasa den uztailaren 6an. Larrabetzun jaiotako txirrindulari handiaren omenezko lasterketa Durangon hasi zen eta Urkiolaan bukatn. Guztira 175 kilometro egin zituzten irteera hartu zuten 500 txirrindulariek eta 7 mendate igo. Urkiolako aldapa gogorrak beste 7 iheslarirekin batera hasi zituela aipatu digu Arkaitzek, "zortziko taldetik bost atzian geratu zian eta hiru ailegau ginan igoerako azken zatira. 500 metro falta ziala erasua jo eta bakarrik ailegatzia lortu naban". Quehrantahuesos ostean zikloturista probarik garrantzitsuenetakoa da Jesus Loroño memoriala. Arkaitzentzat parte hartzen zuen hirugarren a1dia zen. Lehenengo aldian 13. amaitu zuen eta bigarrengoan zazpigarren.

# Pliar Arriola bigarren Aizkorriko Mendi Maratoian

Espainiako Mendi Maratoi Txapelketan seigarren izan ostean, ilusioz hartu zuen irteera Pilar Arriolak Zegama-Aizkorri mendi maratoian. 42 kilometro eta 195 metroak 6:28:58 denboran egin zituen. Sailkapen orokorreko 133. postuad amaitu zuen Pilarrek eta Zegamako helmugan sartu zen bigarren emakumea izan zen. Guztira 220 partaide (6 neska) izan zituen proba gogor honek eta 20 lagun erretiratu ziren. Lehen neska Rosa Lasagabaster eskoriatzarra izan zen 6:05:27 denborarekin. Lehen gizonezkoa, Juan Martin Tolosa amezketarra izan zen 4:14:23 denborarekin.

# Sigmako Pilota Txapelketaren finalak uztailaren 25ean jokatuko dira

Sigmako Pilota Txapelketa iritsi da azken txanpara. Finalaurrekoak uztailaren 16 eta 18an jokatuko dira 19:00etan eta finalak, berriz, uztailaren 25ean (Santiago Eguna) izango da 11:00etatik aurrera Sigmako frontoian. Lehen mailako Txapelketaren finalerdiak erabakitzeke daude oraindik. Bigarren mailako txapelketari dagokionez, jadanik badakizkigu finalerdiak jokatuko dituzten bikoteetako partaideen izenak. Garate eta Iparragirrek Ibarluzea eta Xabierren aurka jokatuko dute lehen finalerdia eta bestetik, Ulazia eta Iriondok osatutako bikoteak Agirrebeña eta Osororen aurka neurtuko dituzte indarrak bigarren finalerchan.



BOUTIQUE DEL PAN
Enpanadak
Enbutidoak
Baserriko ogia
Bolleria
Bartolome, 6 / B. Ezenarro, IT 943 74 33 92



ITURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xixilion, 2• 3sotoa u 943 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

# Boliviako, Bulgariako eta Haritz taldeko dantzariek hartuko dute parte Nazioarteko XVI. Folklore jaialdian

## Ekitaldia uztailaren 24an izango da, gaueko 22:30ean, Kiroldegian

Urtero bezala aurten ere Nazioarteko Folklore Jaialdia izango da Elgoibarren. XVI. edizioa da aurtengoa eta Haritz Dantzari Taldeko kideez gain Bolivia eta Bulgariako dantzariak arituko dira. Santiago bezperan, uztailaren 24an, gaueko 22:30ean izango da jaialdia Olaizaga kiroldegian. Elgoibarko dantzariek makilekin dantzatutako ezpata-dantzarekin hasiko dute saioa. Ondoren, "neskatxen esku dantza" eskainiko dute, eta lehen zatia Oñatiko Gorpuzti eguneko dantza batekin amaituko da. Bigarren partean, Nafarroa Behereko eta Luzaideko dantzarekin egingo dituzte. Saioan Udalaren Txistulari bana eta



*Haritz Dantzari Taldekoek Euskal Herriko dantza ezberdinen erakustaldia egingo dute.*

Inazio Bereziartua eskolako musikariak izango dituzte lagun.

Boliviatik Coehabambako Balet Folklorikoa etorriko da Elgoibarrera. 1999an Coehabambako lehen folklore eskola sortu zen, eta bertan haurrei ku]tur ondarearekiko begirunea, historia, folklore jantziak, artisautza eta dantzak irakasten dizkiete. Talde honek herrialde osoko dantza sorta aurkeztuko du, Boliviak Hegoamerikako folklorerik aberatsenetarikoa baitu. Musikaz "Mayas" talde gaztea arduratuko da.

Naiden Kirov konpainiak urtetako esperientzia du 1960an sortua baita. Dantza, folklore eta antzerki ikuskizuna eskainiko dute, Bulgariako eskualde guztietako dantzak bilduz. Eszenatokian dantzariek abestu ere egiten dute. Orkestmkoek, berriz, musika tresnak jo, abestu eta noizean behin dantza ere egiten dute.

# 10. urteurrena ospatzeko ekitaldiak egingo ditu Itxaropena AheshaUak irailetik aurrera

## Herritarrei entsaioetan parte hartzeko gonbitea luzatu nahi diete koruko lagunek

Itxaropena abesbatzak 10 urte beteko ditu aurten, urrian, eta urtea aurrera joan ahala hainbat kontzertu eskaini dituzte eta beste batzuk ere prestatzen ari dira. Ikasturtea amaitzeko, joan den ekainaren 22an, Orion kontzertua eskaini zuten. Itxaropenako kideak oporretan dira orain eta datorren irailaren 3an hasiko dituzte berriz entsaioak. Abesbatzako lagunek esan digutenez, "korua osatzeko jendea behar dugu, beraz, herritarrak animatu nahi ditugu entsaioetara etortzera, eta gurekin kantatzera".

Kontzertu benefikoa

Opor osteko lehen kontzertua irailaren 28an izango da Parrokian. Luis Anasagasti tenorearekin batera eskainiko dute emanaldia.



Kontzertua benefikoa izango da eta bertan "Maitasuna" elkartearen aldeko diru bilketa egingo dute.Ekitaldi hau urteurreneko egitasmoko lehena izango da, baina "Itxaropena" abesbatzak herritarrei beraien emanaldietara joateko gonbitea luzatu nahi diete, urtean zehar saio ugari egiteko asmoa baitaukate.



karkizano

San Franizisko, 14 -TeL 943 74 05 49

Arrieta

SanBarmlanw,18

21 TeL 943740849 zi

114440t1144 vS. Cb90.

Ofaso industriaidea. Olasope, 66-A

Tei.-Faxa: 943 74 42 54 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

0/ρ"

# Langai

Euskal Lan Zerbilwa To 901 222 901

Debabarreneko enpresa batek 8 forjadore behar ditu.
**ErreF. 83502/1**

Donostialdeko enpresa batek material jefea behar du.
**Erref. 84611/2**

Durangaldeko enpresa batek kamarero laguntzailea behar du.
**ErreF. 84598/2**

Bilboko enpresa batek analista programatzailea behar du.
**Erref. 83222/3**

Debabarreneko enpresa batek torre garabirako 2 gidari behar di tu. **Erref, 84904/3**

Debabarreneko enpresa batek 7 karnarero behar ditu.
**Erref. 84047/2**

Durangaldeko enpresa batek oltzari montatzailea behar du.
**Erref. 83207/3**

Bilbo aldeko enpresa batek COBOL/GCOS/DEVELOPPER 2000rako programatzailea behar du. **Erref. 82862/4**

Durangaldeko enpresa batek peoi garbitzailea behar du.
**Erref. 83240/2**

Bilboko enpresa batek UNIX sistemen teknikaria behar du.
**Erref. 83150/4**

Bilboko enpresa batek BBDD administraria behar du.
**Erref.** 83152/4

Bilboko enpresa baiek 4 programatzaife behar ditu.
**Erref. 83165/3**

# Luna

**E5KAERA**

Mutilak bere burua eskaintzen du taberna garbitzeko. Astearte, asteazken eta astegun goizaldean, irailean eto urrian.
**tr 943 74 44 63** (Andres. 20:30eiik aurrera).

Mutilak bere burua eskaintzen du buzoneo lartean aritzeko.
**tr 943 74 44 63** (Andres)

Neska euskaldunak bere burua eskaintzen du uztailean LHko klaseak emateko. **ir 943 74 33 16**

Neska euskaldunak bere burua eskaintzen du uztailean goizez haurrak zaintzeko.
**tr 943 74 38 94**

Neskak bere burua eskaintzen du etxeko lanak egiteko edo bulegoak garbitzeko. Uztailean eto abuzivan ere bai.
rr **687 04 32 05. (21:00-22:00)**

Emakumeak bere burua eskaintzen du abuztuan garbiketan Lan egiteko edo adineko jendea zaintzeko. **tr 943 74 22 01** (13:00-15:00. Araceli).

Esperientziadun emakumeak bere burua eskaintzen du adineko jendea zaintzeko. a **6/8 38 35 61**

**ESKA1NTZA**

Neskamea behar da irailetik aurrera Urdonibion umeak zaintzen eto etxeko lanetan laguntzen interno modura lan egiieko. 23-50 urte bitartekoa. -er **943 74 03 45.**

Pertsano euskaldun bat behar dugu irailetik aurrera Eibarren umeak zaintzeko eta etxeko lanetan loguntzeka 8:00-16:00.
**tr 943 12 73 68/620 78 68 13**

Elkarte bat garbitzeko emakumea behar da. **zr 699 32 27 56**

Elkarte Mugatu Laboralerako bazkide langilea behar da. **Martxan** dagoen jatetxe-kafetegia. Soldata eta egutegi baldintza bikainak.
ir **620 58 55 08**

# Partikularrak

• Magisteritzako neskak irailetik aurrera klase partikularrak emango ditu. rr **676 69 75 36**

• Tihiludun irakasleak frantseseko klaseak ematen ditu.T=Ir **943 74 42 73**

# Garajeak

* Garaje marraduna alokatzen da Pista Beltzeon. **tr 943 74 16 88**

• Garajea salgai Kalamua kalean.
IT 943 74 34 09

• Garaje marraduna salgai Leku Ederren. a 943 74 **08 44/610 28** 74 **82**

• Garajea alokatzen dut Ikastola ondoan. a **943** 74 28 24

# Bestelakoak

Gameboy bat topalu dut Leku Ederren. **tr 943 74 37 91(Miren)**

• Larunbat gauean Guess markako erloju digitala galdu nuen. Esfera lauki luzea eta korrea txuria ditu.
**tr 653 18 48 85**

sTxakurkumea oparitzen dut (3 hilabete). **tr 661 62 62 60**

Urrezko pultsera (iruditxoekin) galdu nuen uztailaren 5ean, Aurkitu duena saritzeko prest nago. **tr 943 74 28 38**

# Etxebizitzak

• Etxea alokatzen dul Benidorm-en.
**Tr 943 74 06 28**

• Bigarren eskuko etxebizitza salgai Mendaron.
Tr **943 7415 76/ 943 03 35 18**

♦ Etkebizitza salgai Elgoibarko erdigunean a **630 15 66 01**

• Etkebizitza alokatzen da Deban udarako. n2 **943 19 26 55**

*Pisua hartuko nuke atokairuan Elgoibarren edo inguruan.
**tr 652 71 13 85** (Eli)

# Salerosketak

o Auloa salgai. tr 615 74 80 28

o Venebo Vespa 125 salgai. 55-Z. Km Oso berria. 11' **943 51** 23 95 (denclako ordutegia).

Eslrendu gabeko minikatea salgai. Ekonomikoa. '21' **676 69 75 36.**

• BH bizikleta berria salgai. 2 haabete. Mendirako egokia.
rr **600 79 14 40** Igauez deitu)

• Rieju RR super-motard moba salgai. Egoera onean. **tr 943 74 39 70.**

• 50cc-ko Hondo zildomotorra salgai. Zozketa batean tokatua eta erabili gabea. mr **630 77 76 19.**

Auba salgai. Seat Ibiza SS-4847-AH. Egoera oso onean.
**653 01 29 07**

• **16** pulgadako Ilcintok salgai. Cosei Racer markakoak. **661 62 62 60.**

* Ford Scort XR-i salgai. Urdina. 92koa. Ir **661 62 62 60**

• Bideo kamara salgai. Berria dago.
**a 661 62 62 60.**

• Peugeol markako karrerako bizikleta salgai. Egoera oso onean. (Antxon)
**te 943 74 36 36** 122:00eicifik aurrera).

♦ Senar-emozteentzako logela salgai. Gutxt erabilitakoa. 1,35eko ohea.
**tr 943 740458.**

• Elgoibarren 15.000 km'ko terrenoa salgai. 14 urteko pinuekin.
**tr 943 03 35 03**

• Opel Corsa autoa salgai, Merke. SS-X. **tr 943 74 13 82**

• Renault Clio autoa salgai. SS-BB. 4 urte eta erdi. 1900 diesel. Preziaa adosteko. **tr 616 19 13 83**

Korrika egiteko zinta salgai. 35.000 pezetan baloratua eta 20.000 pezetan salgai. *12* **943 74 46 63**

♦ BMW M3 autoa salgai 96 urlekoa, Egoera oso onean 3.800.000 pezeta (negoziatzeko aukeral.
**tr 669 06 83 35**

# Lokalak

*Lokal txikia alokatzen dul San Roke kalean. Trastero, biltegi edo estudiou jartzeko egokia. a **655 73 89 56**

**01 ERKI IGOGAILUAK**

1:1

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

t? 943 82 01 09 Faxa: 943 82 01 62

Indalezio Ojanguren 2, behea • **20600 EIBAR**

**URKIDI** AHOLKULARITZA

**KONTABILITATE**
**LAN**
**FISKAL**

Kalamua, 12 . EiGoisAR
Tel-Faxa: 943 74 18 91

HARTFORD
ASEGURUAK

# Agurrak



*Zorionak Iraitz, hilaren l7an 6 urte beteko dituzulako, Familiakoen eta bereziki Enekoren partez.



*Zorionak Iroŕtrŕ uztailaren 9an 7 urte bete zituelako. Familiakoen eta bereziki anaia Urkoren partez.



♦ Zorionak Riigori uztailaren 10ean 3 urte bete zituelako. Haritz eta Mendiren partez.



♦ Zorionak Ikerri bere laugarren urtebetetzean. Familia eta bereziki Borja, Ignacio eta Leireren partez.



Zorionak Asier **Rodriguezi** hi. laren 9an 5 urte bete zituelako. Guraso, aiton-amona, osabo-izebo, lehengusts eta bereziki bere anaia Marcosen partez.



♦ Zorionak **Jonatizan** Garciari hilaren 1 T n, 10 urte bete zituelako. Gurasoen eta bereziki bere arreba Jesicaren partez,



Zorionak Andreari hilaren 1 T n 6 urte bete zituelako. Amamen, gurasoen, Juan eta Lourdesen eta bereziki bere ahizpa Mariaren partez.



♦ Zorionak Raul eta Vanessa. Azkenean ŕritsi da hainbeste itxaron dugun eguna 02/7/13. Zorionak eta ondo pasa! Ibarluzea familiaren partez.



* Zorionak Helerte Alberdi Artolari, hilaren 10ean 3 urte bete zituelako, Familia guztiaren partez. (neska gorriduna da)



♦ Zorionak Mikel, hilaren 16an 5 urte beteko dituzulako. Aita eta amaren partez.

Zorionak Maite Muguerzari uztailaren 14an urteak beteko dituelako. Bi lagunen partez.

Aupa **Beitat eta Maialen** oso bikote ona egiten dutelako. Zorionak! Anonimoa.

Zorionak **Marietari** bere laranja erdia topatu duelako (Jokin). **Ea** ipurdia ikutzen diozun behingoz! Artonimoa.

## -01 ga.zte Informazioa

*Eigoibarko Gazte Informazio Gurtea Kultur Etxeon.*
*Bigarren solairuan. Tel. 943 741 461 Uztaileko ordutegia:*
*Asteartea, asteazkena eta osteguna 10etaak 13tara*
*Ostirala 177atik 20tara*
*Larunbata 10etatik 14tara*
*Biluzik sexologia zerbitzua*
*Uztaileko ordutegia: Astelehena* 10eunik *13tara*

### BEKAK

**Kazetariak**

Fulbright Fundozioaten bekak kazetari espainiarrentzat. Kazetaritzaren alorrean lprentsa, irratia eta tekbista) espezializatua izanik, EEBBko unibertsitate edo ikastegi espezializatu baten graduo. tu ondoko ikasketak egiteko beka.
Epea: uztailak 27.

Administrazio Publikoa

Eusko Jaurlaritzak 6 beka eskaini ditu. Helburua unibertsitateko tiiukdunei Administrazio Pubhkoaren esparruan prestakenta osagarria eskainizea. **Epea:** uztailak **26.**

### LAIIA

**Gizarte-langilea**

Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioaren eta honen erakunde autonomoen zerbitzurako 2 gizarte-langile kontratatzeko oposizioa.
**Epea: uztailak 19.**

**Administrari laguntzaileak**

Castellongo Diputazio Probintzialean lan egiteko 16 administrafi laguntzaile posturoko oposiziolehiaketa. **Epea: uztailak 14.**

**Udaltzaina**

Ordiziako Udalerako udaltzain lanpostu bcri betetzeko oposiziolehiaketa. **Epea: uztailak 19**

### JARDIJNALDIAK

63. musika hamabostaldia

Donostiako Udalak Musika harnabostaldia antolotu du abuztuaren Btik irailoren Bra arte. Informazio gehiogo: www.quincenamusical.com

**Kontzertua**

Dinamo takleak Xl. Donostia Hiria Pop-Rock Lehiaketako finalerdietara iritsitakoak, Donostiako Kontadoreseko **Gaztegunean** kontzertua eskainiko du **uztailaren 28an.**

OLETE

**Abuituarv zabalatl**

Abuztuaren 5etik 22ra **ORDUTEGI BEREZIA (19:00ETATIK AURRERA)**

Pedro Muguruza 8, behea
**943 74 19 48**

# agencia




## 12 BARIXAKUA

8:00 SAN FERMINETAKO ENTZIERROA ZUZENEAN
Kultur Etxean (pantaila handian)

## 24 EGUAZTENA

22:30 NAZIOARTEKO XVI. FOLKLORE JAIALDIA
Olaizaga Kiroldegian
Antolatzatlea: Haritz Dantzari Taldea
Bulgaria eta Boliviako dantza taldeak

## Zj EGUENA

SARGOATEKO ERROMERIA
11:30 Meza
12:00 Salda eta txorizoa
12:30 Bertsolariak eta trikitilariak
14:00 Erromeriaren amaiera
AntolatzaileaK: Dehemen, Morkaiko M.E., Elgoibarko Izarra, Udala eta Sallobenteko Jai Batzordea

### SallonbentefErmuaran-go jaiak

*ABUZTUAK 9, BARIXAKUA*
*18:00* Kanpai jotzea eta txapligoak
18:30 Errosarioa eta meza auzoan hildakoen alde
Onduren, bakailo jana Sallobenteko edadetuentzat
Bertso saioa: Mañukorta eta Lizaso
22:30 Erromeria Epelde, Larranaga eta Berasategirekin
23:00 Bolo saioak

*ABUZTUAK 10, ZAPATUA*
Sallobente Eguna
11:00 Meza nagusia
12:00 Pilota partiduak
17:00 Haurrentzako jolasak eta zezenak eta poniak
19:00 Txokolatada haur eta zaintzaileentzat
20:00 Emakumeentzako holo saioa
22:30 Bolo saioak
23:00 Gau pasa taldearekin

*ABUZTUAK 11, DOMEKIA*
*11:00* Meza nagusia
Onduren, salda eta txorizoa
12:30 Artzai txakurren erakustaldia
14:30 Bazkaria Gardokik alaituta
18:30 Herri kiro]ak
Aizkolariak: Mugerza eta Barberena
Harrijasotzaileak: Egi eta Mintxeta
Ondoren, zezenak eta poniak
22:30 Bolo saioa
23:00 Erromeria Gardokirekin


# ETEen enpresa gestioan ikastaro aurreratua

Europa Gizarte Fondoak kofinantzatua

***Administrari profita eta Eteen administrazio-gestioan esperientzia duten emakumeei zuzendua.***

eiraupena: 2002ko Urritik 2003ko otsailerarte (100 ordu)
• Tokia: Debegesa. Azitaingo Industrialdea, 7 E1BAR
Glkastaro emailea: Elgoibarko Gestio Eskola
• Prezioa: doan, Ikastaroaren hasieran 150,00 euroko matrikula kobratuko da pertsona bakoitzeko, baina gutxienez %80ko asistentzia izanda, diru kopuru hori ikastaroa amaitzean itzuli egingo da.
• Ordutegia: astearte eta ostegunetan, 18.30etaik 21.00etara.
• Izen-ematea: Debegesa. Tel. 943 820 179 - e-maila: ealonso@debegesa.com

Debegesa
Deba Beheke Garapen ElubrIrnikoraicP Elkz?,rtea
Sociedad para et ralio 1Econtirnito del Bajo Deba

Debegesak antolatua
Europako Gizarte Fondoak kofinantziatua
Laguntzailea: Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Segurtasun Saila

Europa Gizarte Fondoa
Fondo Social Europeo
EUSKO JAURLARITZA
ETA OIZARTE SEGLIFIANIZA SAA.A
GOBIERNO VASCCI
oEsamppilmn pE SF9k11100.0 SOCW-

**ABUZTUAK 15, EGUENA**
17:00 Kanpai jotzea eta txupinazoa
20:00 Errosario santua
20:30 Afaria Egaiia eta Lizasorekin. Tarteka Ander eta Aintzaneren saioak

**ABUZTUAK 16, BARIXAKUA**
**San Roke Eguna**
8:00 Txapligoak eta txupinazoa
I1:00 Meza nagusia
**Jarraian,** Haritz Euskal Dantzari Taldea
**Ondoren,** Zaldi Lasterketa
17:00 Umeen jolasak ustekabearekin
Ondoren, zezentxoak eta zalditxoak
23:00 Erromeria Ion eta Agurtzane Elustondorekin
01:00 Bolo saioak

**ABUZTUAK 17, ZAPATUA**
**8:00** Txapliguak eta txupinazoa
11:00 Bailarako hildakoen aldeko meza
12:30 Sokatira lehiaketa ezkondu eta ezkongaien artean
14:00 Anaiarteko bazkaria
Jose Gardokik alaituta
18:00 Herri Kirolak.
Aizkolariak: Txapartegi eta Arria V.
Harrijasotzaileak: Egi eta Mintxeta
**,farraian:** zezentxoak eta zalditxoak
22:30 Erromeri Gardoki aita-alabekin
01:30 Karretilaren zozketa

## IKASTAROAK

**Psikomotrizitate ikastaroa**
Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak eta Triska Dantza Elkarteak 2 eta 5 urte bitarteko haurrentzako Psikomotrizitate ikastaroa antolatu dute Olaizaga Kiroldegian. frailaren 16an hasiko da ikastaroa, astearte eta ostegunetan, arratsaldeko 17:00etatik 18:00etara, eta ikasturte osoko iraupena izango du. Psikomotrizitate ikastaro honen helburua 2 eta 5 urte bitarteko umeak jolasen eta dantzaren bitartez hezitzea izango da, umearen hainbat gaitasun garatuz. Izena emateko lehenengo epea irekita dago Olaizaga Kiroldegian uztailaren 30era arte.

**Rumba, sevillanak eta dantza klasikoa**
Elgoibarko UdaI Kirol Patronatuak eta Triska Dantza Elkarteak hainbat dantza ikastaro antolatu dituzte Olaizaga kiroldegian. Alde batetik, Lisbeth Fuentes irakasle kubatarrak Rumba eta Sevillana ikastaroa emango du, eta bestetik, Josu Mijikak umeei zuzenduriko Dantza Klasiko ikastaroa. Bi ikastaro hauei irailaren 16an emango zaie hasiera eta ikasturte osoko iraupena izango dute. Interesatuek izena eman dezakete Olaizaga kiroldegian uztailaren 30a baino lehen.

## zine
KARTELDEGIA

**ELGOIBAR, Plaza Handia**

maquina del tiernpo"
12. barixaktta: 22:30
13, zapatua: 22:30

01,11

"El señor de los anillos"
12, hari xaktta: 18:30-22:00
13. iapatua: 18:30-22:011
14.11ornekia: 18:30-'2:00
15. a.telehena: 18:30-22:01)
16, martitzena: 18:30-22:00
17, atuaftena: 18:30-22:00

"S'ivaneos III"
12, barixaktia: 19:30-71:15
13. zapatua:17:01)-19:30-2):15
4, Llornekia:17:00-19:30-'1:15
15. aqelehena: 19:30-":15
marthrena: 19:30-11:15
9. marthiersa: 10:30-11:15

"Spidennan"
12, harixakua: 22:30
13, zapatua: 22:30
14. domekia: 17:00-19:30-22:15
15, astelehena: 19:30
16. martittena: 19:30

"Ilesident Evil"
12, harixakua: 27:00
13, tapatua: 22:00
14, domekia:17: 15-19:30-22:00
14, astelehena: 20:00

BARRENek ez du gerta litezkeen eranaldien aldaketen erantzukizunik.



**"LA MAQUINA DEL TIEMPO"**
Zuzendaria: Simon Wells.
Antzezleak: Guy Pearce, Samantha Mumba, Jeremy Irons.

Alexander Hartdegen (Guy Pearce) zientzilari eta asmatzailea denboran bidaiatzea posible dela sinisturik dago eta mundu guztiari frogatu nahi dio. Gainera, ezbehar pertsonal bat dela-eta, denboran atzera egitea nahi du gauzak aldatzeko. Iraganera joan behmean etorkizunera, eramango du berak sortutako denboraren makinak, 800.000 urte barruko etorkizunera, hain zuzen ere. Bertan, gizateria ehiztari eta ehizatuen artean banatuta dagoela konturatuko da.



Aste honetako argazkia 1963an ateratakoa da. Uda partea ezkontzen garaia dela esaten da, baina orain ezkontzak baino jaunartzea hartuko dugu hizketagai. Mari Carmen Fidalgok laga digu argazkia eta bera izan zen urte hartan, 11 urte zituela, bigarren jaunartzea egin zuena. Familiakoekin agertzen da argazki honetan bolatokiko parkean Parrokiaren aldamenean.

Goian ezkerretik eskumara: Francisco Fidalgo, Castor Prieto, Pura Gallego (t), Pilar Iglesias, Pio Cid eta Ramon Cid.

Behean ezkerretik eskumara: Juan Ignacio Cid, Cesar Fidalgo, M. Carmen Fidalgo, Nieves Cid, Benerando Cid, M. Carmen Cid eta Conchi Cid.



**Giokela,** Okel G.arbia Muturretik Buztanera

**Giokela,** Berme Osoko Okela

**Giokela,** Kalitatezko Okela




**PATXI URANGA Haretegia**
San Bartolome, 30
ELGOIBAR

Zer jan, hura izan


# FAXISMOA GELDITU

91,1111

*leuska. heria entzat*

OSTEGUNA, hilak 18,
arratsaldeko 20:00etan
MAN IFESTAZIOA PLAZATIK





EZ GAITUZTE IXILARAZIKO
EZ GAITUZTE GELDIARAZIKO

batasuna

# ELGOIBARKO NAZIOARTEKO XVI.FOLKLORE JAIALDIA

## Euskadi Bolivia - Bulgaria





**2002ko uztailak 24,**
**asteazkena,**
**gaueko 10:30ean**



Kultura Saila

MUSika eta Dantza
Udal Fundazioa

Aidundia

SAREA
Sarea

ELGOIBARKO KIROL PATRONATUA
Elgoibarko
Kirol Patronatua

TXANKAKUA
Txankakua

Haritz
Euskal Dardzari Taldea

## OLAIZAGA KIROLDEGIAN